"ZUMARRAGAKO UDALEKO GURASOEN ERANTZUNKIDETASUNARERAKO AHOLKULARITZA JURIDIKOKO ETA ORIENTAZIOKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO KLAUSULA BEREZIEN PLEGUA. PROZEDURA IREKIA

I. KONTRATUAREN ALDERDI OROKORRAK ETA KONFIGURAZIOA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Plegu honen bidez arautuko den kontratuaren helburua da Zumarragako Udaleko Gurasoen Erantzunkidetasunarerako Aholkularitza Juridikoko eta Orientazioko Zerbitzua ematea, plegu honen eta baldintza teknikoen pleguaren arabera.

1.1. Lotekako banaketa: Ez.

Gurasoen Erantzunkidetasunarerako Aholkularitza Juridikoko eta Orientazioko Zerbitzua ematea, eta prestazio bakar eta banaezin gisa eratzen da. Hala, hainbat operadorek, sortatan banatuta, hura gauzatzeak koherentzia teknikoa galtzeko eta zerbitzuaren arretan eta jarraipenean etenak izateko benetako arriskua ekarriko luke eta, eta zaildu egingo luke zerbitzua behar bezala ematea, jarduketa juridikoen eta orientazio arlokoen arteko etengabeko koordinazioa behar delako. Beraz, kontratua behar bezala egikaritzearekin lotutako balizko arrazoiak daudenean, kontratua ez zatitzeko aukerari helduz, lotetan ez banatzea adosten da, eta espedientean jasotzen da erabaki hori, modu arrazoituan adierazita.

1.2. Erreferentzia-zenbakia CPV-tan

• 85312300-2 – Orientazio- eta aholkularitza-zerbitzuak.
• 79111000-5 – Aholkularitza juridikoko zerbitzuak.
• 85121270-6 – Zerbitzu psikiatriko edo psikologikoak.

1.3. Kontratazio-organoa

Zumarragako Udaleko alkatea, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen bigarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera

1.4. Kontratuaren arduraduna

SPKL-ko 62. artikuluan aurreikusitakoaren ondorioetarako, kontratuaren arduraduna Gizarte Zerbitzuen arloko koordinatzailea da.

2. KONTRATUAREN XEDEA ETA ESTALI NAHI DIREN PREMIAK:

- Familia-krisian dauden familiei orientazio espezializatua eskaintzea.
- Familiaren arloko eskubide eta betebeharrei buruzko informazio juridikoa ematea.

- Familia banantzeko eta berrantolatzeko prozesuen kudeaketa egokia bultzatzea.
- Gurasoen erantzunkidetasuna eta lankidetza sustatzea.
- Prebentziozko jardueren bidez, familia-gatazkak gutxitzea.
- Esku-hartzearen printzipio gidaria haur eta nerabeen interes gorena izan dadila bermatzea.

3. BURUTZEKO EPEA

Kontratua egikaritzeko epe osoa bi urtekoa izango da, kontratua sinatzen denetik hasita.

Kontratista berandutze-egoeran dagoela ulertuko da aipatutako epea igarotzen bada, eta, horretarako, ez da beharrezkoa izango Administrazioak aldez aurretik ohartaraztea.

Kontratuaren iraupena: 2 urte

Luzapenak: 2; urtebeteko bi luzapeneko aukerarekin. (2+1+1)

4. LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA

Kontratuaren lizitazioaren oinarrizko aurrekontua 12.100,00 eurokoa da urtean, BEZ gabe. Ondorioz, hasierako bi urteko epeari dagokion lizitazioaren oinarrizko aurrekontua 24.200,00 eurokoa da, BEZ gabe, eta kontratuaren gehieneko zenbatekoa, urtebeteko bi luzapenak barne, 48.400,00 eurokoa da, BEZ gabe.

Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua prestatzeko, merkatuko prezioak eta prestazioaren benetako kostua hartu dira kontuan. Aholkularitza juridikoko zerbitzuaren kostua kalkulatzeko, Abokatutzaren Euskal Kontseiluak argitaratutako Abokatutzaren Elkargoaren zerbitzu-sarien liburuan jasotzen diren gutxi gorabeherako zenbatekoak hartu dira erreferentzia modura. Arreta psikologikoko zerbitzuaren kostua kalkulatzeko, berriz, sektoreko profesional autonomo batek aplikatu ditzakeen tarifa arruntak hartu dira erreferentziatzat. Dena den, lizitatzaileek eskainitako prezioak kontratua behar bezala egikaritzeko beharrezkoak diren kostu guztiak jaso behar ditu.

Zerbitzua gauzatzeko, hilean 16 orduko arreta psikologikoa eta 3 orduko aholkularitza juridikoa ematea aurreikusi da. Aurrekontua zenbatetsi da dedikazio hori eta dagozkion zerbitzu profesionalen merkatuko kostua kontuan hartuta.

Eskainitako prezioan sartuta egongo dira kontratuaren xede diren prestazioak gauzatzearen ondoriozko gastu guztiak, hala nola kontratua gauzatzeari atxikitako langileen edo profesionalen ordainsariak edo zerbitzu-sariak, gizarte-kargak edo dagozkion kotizazioak, ordezkapenak, aseguruak, prestakuntza, gastu orokor eta finantzarioak, industria-onura eta aplikatu beharreko tributu eta zerga mota guztiak, bai eta zerbitzua emateko behar diren bitarteko materialak ere.

Udalak ez du inolako kontzeptu edo kopururik ordainduko esleipenaren preziotik gora.

Luzapenen balio zenbatetsia (2) 24.200,00 eurokoa da, BEZ gabe. Kontratuaren balio zenbatetsi osoa 48.400,00 eurokoa da, BEZ gabe.

5. FINANTZAKETA

Kontratuaren prezioa ordaintzeko, aurrekontu gaietan eskumena duen organoak behar diren kredituak gordeko ditu ukitutako ekitaldietako aurrekontuetan.

Kontratuaren ondoriozko gastua indarreko Udal Aurrekontuan aurreikusita dago, aurrekontu-partida honetan: 0213.227.231-00.14. **144** Gurasoen erantzunkidetasun zerbitzua – Gurasotasun zerbitzua.

6. ORDAINKETEN ARAUBIDEA

Kontratuaren prezioa ordaintzeko, faktura aurkeztu eta ontzat eman beharko da, hilabeteko epean, faktura Zumarragako Udaleko Erregistro Orokorrean erregistratzen den egunetik zenbatzen hasita.

7. PREZIOAK BERRIKUSTEA

Kontratu hau ez da prezioak berrikustearen mende egongo.

8. BERMEAK

Kontratuaren esleipendunak behin betiko bermea jarri beharko du, beregain hartutako betebeharrak beteko dituela bermatzeko. Berme horren zenbatekoa esleipenaren zenbatekoaren %5 izango da, BEZ gabe.

Berme hori eratzeko epea 17. klausulan aipatzen den errekerimenduan adierazitakoa izango da, eta SPKL-ko 108. artikuluan ezarritako bideetako edozein erabiliz eratu ahal izango da. Baliabide elektroniko, informatiko edo telematikoen bidez egiaztatu ahal izango da eratu dela. Lizitatzaileari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik baldintza hori betetzen ez bada, Administrazioak ez du haren aldeko esleipenik egingo.

Bermea, osokoa zein partziala, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeko 111. artikuluan xedatutakoaren arabera itzuliko edo ezereztuko da, berme-epea amaitu eta esleipendunak kontratuko betebehar guztiak bete ondoren.

II.- KONTRATATZEKO PROZEDURA

9. ESLEITZEKO PROZEDURA

Kontratu honen esleipena prozedura ireki bidez egingo da, SPKL-n aurreikusitakoarekin bat etorriz. Prozedura hori izapidetzean, aipatutako legean eta lege hori garatzeko arauetan jasotako jarduketak burutuko dira.

10. LIZITAZIO ELEKTRONIKOA

Lizitazio hau bitarteko elektronikoak erabiliz izapidetuko da, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen xedapenekin bat etorriz. Beraz, Udalaren eta lizitatzaileen arteko harremana ere bitarteko horiek erabiliz gauzatuko da.

11. JAKINARAZPENAK ETA KOMUNIKAZIOAK

Espediente honi dagozkion jakinarazpen eta komunikazio guztiak elektronikoki egingo dira, eta, horretarako, prozesu honi jarraituko zaio:

1) Hartzailearen eskura jartzea.
2) Jakinarazpenaren edukira sartzea.

Epeak jakinarazpenaren oharretik hasiko dira zenbatzen (jakinarazpenaren xede den egintza egun berean argitaratzen bada kontratatzailearen profilean), edo jakinarazpena jasotzen denetik (egintza egun berean argitaratzen ez bada kontratatzailearen profilean).

Jakinarazpena eskura jarri eta hamar egun natural igarotakoan, hartzaileak ez badu onartzen edo ukatu egiten badu, iraungitzat joko da, eta jakinarazpenaren izapidea formalki betetzat joko da.

12. KONTRATATZEKO GAITASUNA

Kontratazio-prozedura honetan parte hartu ahal izango dute gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoa duten pertsona natural edo juridikoek, baldin eta kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionala badute, eta SPKL-ko 71. artikuluan kontratazioarekin lotuta ezarritako debekurik ez badute. Kaudimena 17-5. klausulan ezarritako bitartekoekin egiaztatu eta ebaluatuko da.

Era berean, beren kabuz edo baimendutako pertsona batek ordezkatuta egin ahal izango dute, horretarako ahalorde askietsia emanda. Pertsona juridiko bat ordezkatuz, bertako pertsona kideren bat aurkezten denean, agiri bidez frogatu beharko du horretarako ahalmena duela. Kasu batean zein bestean, kontratatzeko aipatutako ezintasun-arrazoiek ordezkariari eragiten diote.

Pertsona horiek, halaber, kontratu honen xede den jarduera edo prestazioa gauzatzeko, hala

badagokio, eskatzen den enpresa- edo lanbide-gaikuntza izan beharko dute.

13. ESLEITZEKO IRIZPIDEAK

Honako hauek dira kontratua esleitzeko oinarri gisa erabiliko diren eskaintzak baloratzeko irizpideak, eta esleitzen zaien haztapena:

13.1.- *Automatikoki ebaluatu daitezkeen irizpideak*

ESKAINTZA EKONOMIKOAK, gehienez, 49 puntuko balorazioa izango du, honela banatuta:

49 puntu emango zaizkio preziorik merkeenari, eta gainerako eskaintzen puntuazioa lortzeko, preziorik baxuenaren eta baloratzen den lizitatzailearen eskaintzaren arteko zatiduraren emaitza bider irizpideari aplikatu ahal zaizkion puntu guztiak egin behar da. Hau da:
Lp= Eb/Le x 49

Non:
Lp: Lizitatzailearen puntuazioa
Eb: Eskaintza baxuena
Le: Lizitatzailearen eskaintza

13.2.- *Balio-judizio baten arabera kuantifikatu beharreko irizpideak*

PROIEKTU TEKNIKOAK gehienez, 51 puntuko balorazioa izango du

Balio-judizioaren mendeko irizpideak baloratzeko, enpresa lizitatzaileek **proiektu tekniko** bat aurkeztu beharko dute. Proiektu hori dokumentu bakar batean aurkeztu beharko da, orri korrelatibo eta agerikoarekin, A4 formatuan, eta gehienez hogeita bost (25) orrialde konputagarrirekin, azala eta aurkibidea sartu gabe. Kopuru horretatik gora, orrialdeak ez dira irakurriko, eta ez dira kontuan hartuko puntuazioari dagokionez; eta, aurkezteko erak eragozten badu argi eta garbi identifikatzea zein diren orrialde konputagarriak, orrialdeak adierazita ez daudelako edo egiaztapena nabarmen zailtzen duten akatsak daudelako, proiektua zero (0) punturekin baloratu ahal izango da balio-judizioaren mendeko irizpide guztietan, ebaluazioan berdintasuna eta objektibotasuna bermatzeko beharrezkoa den baldintza formal bat ez betetzeagatik.

Eskaintzak irizpide horien arabera baloratuko dira formulen bidez ebaluatu beharreko dokumentazioa ireki aurretik, eta egindako ebaluazioa dokumentu bidez jasoko da. Irizpide automatikoei buruzko gutun-azala irekitzeko ekitaldian emango da balorazio horren berri.

Balorazio teknikoa erakunde lizitatzaileek aurkeztutako **proiektu teknikoa** oinarri hartuta egingo da, irizpide hauen arabera:

1. Zerbitzuaren proiektu teknikoa, garapena eta metodologia (26 puntu gehienez).

Honako hauek balioetsiko dira: proposamenaren kalitatea, koherentzia eta kontratuaren xedearekin bat etortzea, esku-hartzeko metodologia, jarduketen plangintza eta erabiltzaileen premietara eta Baldintza Teknikoen Pleguan ezarritako helburuetara egokitzea.

2. Udal Gizarte Zerbitzuekin koordinatzeko metodologia eta jarraipen-sistema (15 puntu gehienez).

Udal Gizarte Zerbitzuekin koordinatzeko proposamena, kasuak bideratzeko eta horien jarraipena egiteko prozedurak, komunikazio-mekanismoak eta zerbitzua ebaluatzeko eta etengabe hobetzeko sistema baloratuko dira.

3. Giza baliabideak eta lantaldearen antolaketa (10 puntu gehienez).
Kontratuari atxikitako taldearen antolaketa, funtzioen banaketa, zerbitzuaren jarraipena bermatzeko neurriak eta koordinazio eta gainbegiratze profesionalerako barne sistemak baloratuko dira.

Irizpide horiek baloratzeko, horretarako izendatutako langileek txosten tekniko arrazoitua egingo dute.

Udalak aukera izango du lizitazio-prozesutik kanpo uzteko balio-judizio baten arabera kuantifikatu beharreko irizpideen balorazioan (proiektu teknikoa) 25 puntu gainditzen ez dituzten eskaintzak.

14. KONTRATAZIO MAHAIA

Epaimahaiburua: Arantxa Gonzalez, Gizarte Ongizateko zinegotzi ordezkaria

Batzordekideak:

Lierni Muñoa, Udal Kontuhartzailea.
Lucía Ocariz, Udal idazkaria
Irune Zuazolazigorrizaga, gizarte langilea

Idazkaria: Beatriz Arbizu, Gizarte Ongizate saileko koordinatzailea

Eskaintzak baloratzeko organo eskuduna Kontratazio Mahaia da. Mahai hori SPKL-ko Bigarren Xedapen Gehigarrian aurreikusitakoaren arabera eratuta dago, eta lehendakari batek eta gutxienez hiru kidek eta idazkari batek osatzen dute.

Kontratazio Mahaiaren funtzionamendu-araubidea SPKL-an eta hura garatzeko xedapenetan araututakoa da.

15. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO EPEA ETA EZAUGARRIAK, ETA PLEGUETARAKO IRISPIDEA

ZUMARRAGAKO UDALA Euskadi Plaza 1, 20700 ZUMARRAGA (Gipuzkoa). Tel.: 943 72 90 22 Faxa. 943 72 46 79 E-mail: informazioa@zumarraga.

Lizitazio hau Udal honen kontratatzailearen profilean iragarriko da, Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataforman.

Proposamenak elektronikoki aurkeztu beharko dira aipatutako Plataforman, 15 egun naturaleko epean, aipatutako iragarkia agertzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, aipatutako epearen azken eguneko 14:00ak arte.

Udal honetako kontratatzailearen profilera sartzeko, helbide hau erabili ahal izango da: www.zumarraga.eus. Toki horretan bertan eskuratu ahal izango dira pleguak eta dokumentazio osagarria.

Lizitatzaileek, hala badagokio, pleguei edo dokumentazio osagarriari buruz eskatzen duten informazio gehigarria proposamenak jasotzeko finkatutako epemuga baino sei egun lehenago eman beharko da, baldin eta eskaera proposamenak jasotzeko aurrez adierazitako epea amaitu baino 12 egun lehenago egin bada gutxienez.

SPKL-ko 136.2 eta 3 artikuluan xedatutakoaren arabera, pleguei edo dokumentazio osagarriari buruzko informazio gehigarria ezin izan denean eman adierazitako epeetan, edo eskaintzak lekuan bertan bisita egin ondoren edo pleguan erantsitako dokumentazioa bertatik bertara kontsultatu ondoren soilik egin daitezkeenean, eskaintzak jasotzeko epea komenigarritzat jotzen den adina luzatuko da, eragindako hautagaiek eskaintzak egiteko behar duten informazio guztia ezagutu dezaten.

Lizitazio-prozedura honetan ez da onartuko deskribatutako bitarteko elektronikoez aparte aurkezten den eskaintzarik. Horretarako, ezinbestekoa da Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataformaren edo Sektore Publikoaren Kontratazio Plataformaren erabiltzaile erregistratua izatea.

Eskaintza bateko dokumenturen bat ezin bada behar bezala bistaratu, horren berri eman gehienez ere 24 orduko epean, aukera emango da lizitatzaileak fitxategi okerrean sartutako dokumentua formatu digitalean aurkeztu dezan. Geroago aurkeztutako dokumentuak ez du inolako aldaketarik izango eskaintzan sartutako jatorrizkoarekiko. Kontratazio-organoak egiaztatzen badu dokumentuak aldaketak izan dituela, lizitatzailearen eskaintza ez da kontuan hartuko.

Proposamenak Administrazio Klausula Berezien Plegu honetan aurreikusitakora egokitu beharko dira, eta haiek aurkezteak esan nahi du lizitatzaileak klausula edo baldintza horiek baldintzarik gabe onartzen dituela, inolako salbuespen eta erreserbarik gabe, eta baimena ematen diola Mahaiari eta Kontratazio Organoari Euskadiko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan dauden datuak kontsultatzeko.

Lizitatzaile bakoitzak ezingo du proposamen bat baino gehiago aurkeztu, aldaerak onartzea baztertu gabe. Halaber, ezingo du proposamenik izenpetu aldi baterako enpresa-elkarte batean, banaka egin badu; eta ezingo da egon aldi baterako enpresa-elkarte bat baino

gehiagotan. Arau horiek hausten badira, lizitatzaileak izenpetutako proposamen guztiak ez dira onartuko.

Alde batera utzi gabe informazio publikoa eskuratzeari buruz indarrean dagoen legeriak eta esleipenari publizitateari buruz eta hautagaiei eta lizitatzaileei eman beharreko informazioari buruz SPKL-ko xedapenek jasotzen dutena, lizitatzaileek konfidentzial gisa izendatu ahalko dute eskaintzak egitean haiek emandako informazioaren zati bat; batez ere, sekretu tekniko edo komertzialei eta isilpeko alderdiei buruzkoa. Udalak ezingo du informazio hori zabaldu dagokion lizitatzailearen baimenik gabe.

16. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO MODUA

Lizitatzaileek hiru gutun-azal elektroniko aurkeztu beharko dituzte, lizitatzaileak edo hura ordezkatzen duen pertsonak sinatuta, eta haietako bakoitzerako klausula honetan zehazten den edukiarekin.

«A» GUTUN-AZAL ELEKTRONIKOA.- «KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA»

Gutun-azal horrek honako dokumentu hauek izango ditu:

a) Helbide elektroniko gaitua.

Helbide elektroniko gaitu bat izendatzea, SPKL-ko hamabosgarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera, kontratazio-espediente honetatik eratorritako jakinarazpenak egiteko erabiliko dena.

b) Lizitatzailearen erantzukizunpeko adierazpena, I. eranskinaren arabera.

c) Aldi baterako enpresa-elkartean (ABEE) parte hartzen duten operadore ekonomikoen kasuan, kide bakoitzak bere Erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko du. Halaber, kontratua esleitzen bazaie, aldi baterako enpresa-elkartea formalki osatzeko konpromisoa aurkeztu behar dute, eta bakoitzaren izena, egoera eta aldi baterako enpresa-elkarte horretan duten parte-hartzea zehaztu behar dituzte.

d) SPKL-ko 75. artikuluan xedatutakoaren arabera, lizitatzailea beste erakunde batzuen kaudimenean eta baliabideetan oinarritzen bada, erakunde horietako bakoitzak Erantzukizunpeko adierazpena ere aurkeztu beharko du.

e) Kaudimen-baldintza ezberdineko lotetan banatuz gero, kaudimen-baldintza berberak aplikatzen zaizkion lote edo lote-multzo bakoitzeko, Erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztuko da.

Legean eta plegu honetan izaerarekin, gaitasunarekin eta kaudimenarekin lotuta eskatzen diren baldintzak betetzen diren ala ikusteko une erabakigarria proposamenak aurkezteko epea

amaitzen denekoa izango da.

«B» GUTUN-AZAL ELEKTRONIKOA.- «BALIO-JUDIZIO BIDEZ BALORATZEKO IRIZPIDEAK»

Gutun-azal horretan balio-judizio baten arabera baloratu beharreko irizpideei buruzko dokumentuak sartuko dira, plegu honen 13. klausulan adierazten direnak.

«C» GUTUN-AZAL ELEKTRONIKOA.- «AUTOMATIKOKI BALORATZEKO IRIZPIDEAK»
Gutun-azal horrek honako dokumentu hauek izango ditu:

a) II. eranskineko ereduaren araberako proposamen ekonomikoa.
b) Automatikoki baloratzeko gainerako irizpideei dagozkienak, plegu honen 13. klausulan adierazten direnak.

17. AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOA IREKI ETA TRATATZEA, ENPRESAK HAUTATZEA ETA ESKAINTZAK BALORATZEA

Proposamenak aurkezteko epea amaitu ondoren, honako jarduketa hauek egingo dira:

1.. «A» GUTUN-AZALA IREKITZEA

Proposamenak aurkezteko epea amaituta, A gutun-azala irekiko da, elektronikoki. Artxibo elektronikoak irekitzeko eta irispidean jartzeko jarduketa materiala administrazio-unitate arduradunak egin ahalko du, eta irekiera horren eguna eta ordua eta egindako jarduketak espedientean jasoko dira.

A gutun-azalean jasotako administrazio-agirien kalifikazioa, SPKL-ko **¡Error! Referencia de hipervínculo no válida.** aipatzen duten aldez aurreko baldintzak betetzeari buruzkoa, kontratazio-mahaiari egokituko zaio, SPKL-ko **¡Error! Referencia de hipervínculo no válida.** betez.

Mahaiak aurkeztutako dokumentazioa aztertuko du eta, zuzendu daitezkeen akatsak edo hutsuneak daudela ikusten badu, lizitatzaileei jakinaraziko die, eta hiru eguneko epea emango die horiek zuzentzeko. Espedientean jasota geratuko da egindako errekerimendua, eta hori bete dela edo, hala badagokio, ez zaiola jaramonik egin.

Zuzentzeko izapidea amaitutakoan, Mahaiak, hala badagokio, eskatutako aurretiko baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen ez duten lizitatzaileak baztertzea erabakiko du, eta prozeduran jarraitzen duten lizitatzaileen zerrenda deklaratuko du, hori guztia dagokion aktan jasota.

2.. «B» GUTUN-AZALA IREKITZEA

A gutun-azalaren kalifikazioa amaitu eta, hala badagokio, mahaiak erabakitako zuzenketak eta bazterketak ebatzi ondoren, B gutun-azala irekiko da. Gutun-azal horretan sartuko dira balio-judizio baten arabera kuantifikatu beharreko irizpideei buruzko dokumentuak.

Kontratazio-mahaiak irekiko ditu, kontratatzailearen profilean iragartzen den egunean, orduan eta moduan. Dokumentu bidez jasoko dira irekitako proposamenak eta B gutun-azalean jasotako dokumentazioa.

Baldin eta, B gutun-azaleko dokumentazioa behar bezala aztertzeko, argibideak edo zehaztapenak behar badira, Mahaiak lizitatzaileari eskatu ahal izango dizkio, baldin eta horrek ez badakar eskaintzaren baldintzak aldatzea, edo baloratu beharreko elementuak aldatzea, eta espedientean jasota geratuko dira errekerimendua eta jasotako erantzuna.

B gutun-azalaren dokumentazioa berau baloratzeaz arduratzen den zerbitzu teknikoari bidaliko zaio, dagokion txostena egin dezan. Txosten hori formulen bidez ebaluatzeko irizpideak jasotzen dituen gutun-azala ireki baino lehen bideratu beharko da, eta gehitu beharko da espedientera.

3.. «C» GUTUN-AZALA IREKITZEA

B gutun-azalaren balorazioari buruzko txostena eman ondoren eta espedientean sartu ondoren, kontratazio-mahaiak C gutun-azala irekiko du, kontratatzailearen profilean iragartzen den lekuan, egunean eta orduan.

Ekitaldi horretan, eskaintza bakoitzean balio-judizio baten mende dauden irizpideei esleitutako balorazioa ezagutaraziko da, formulen bidez ebaluatu daitezkeen irizpideak aztertu aurretik, faseen arteko bereizketa eta proposamenen izaera sekretua zainduz, harik eta ireki arte.

Aurrekoa gorabehera, C gutun-azalaren alderdiei buruzko argibideak eskatu ahalko dira soilik hura behar bezala ulertzeko behar-beharrezkoak direnean eta, betiere, zuzenean edo zeharka, aurkeztutako eskaintza aldatzea ez badakarte.

4.. ESKAINTZEN SAILKAPENA

Irizpide guztiak baloratu ondoren, Kontratazio Mahaiak aurkeztutako proposamenak sailkatuko ditu goitik beheranzko hurrenkeran, eta, egin beharreko jarduketak egin ondoren, kontratua esleitzeko proposamena igorriko dio Kontratazio Organoari.

Kontratua esleitzeko proposamenak ez du inolako eskubiderik sortuko proposatutako lizitatzailearen alde, eta hark ez ditu eskuratuko Administrazioaren aurrean, kontratua formalizatu arte.

SPKL-ko 149. artikuluan ezarritakoaren babesean, nabarmenki baxuegiak izan daitezkeen

proposamen bat edo batzuk identifikatzen direnean, eskaintzak nabarmenki baxuegiak direla deklaratzeko, lizitatzaileari edo, hala badagokio, aurkeztu dituzten lizitatzaileei entzun beharko zaie aurrez, eta dagokion zerbitzuaren aholkularitza teknikoa beharko da. Kasu horretan, kontratazio-organoak, lizitatzaileak egindako justifikazioa eta eskatutako txostenak ikusita, Administrazioaren mesedetan bete daitekeela uste den eskaintza onuragarrienari esleitzea erabakiko du.

Aitzitik, kontratazio-organoak uste badu eskaintza ezin dela bete baja anormalak sartu direlako, sailkapenetik kanpo utziko du, eta esleipena eskaintza onenaren alde egitea erabakiko du, sailkatu diren hurrenkeraren arabera.

Egindako guztia espedientean jasoko da akten bidez. Akta horiek nahitaez egin beharko dira.

5.. ERREKERIMENDUA LEHEN SAILKATUARI

Aurreko jarduketak egin ondoren, kontratazio-zerbitzuek errekerimendua egingo diote lehen sailkatuari, hamar egun balioduneko epean, errekerimendua jaso eta biharamunetik hasita, jarduketak egin ditzan edo ondoren aipatzen diren dokumentuak aurkeztu ditzan:

a) Parte-hartzailearen edo bere ordezkariaren Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia. Gainera, beste pertsona edo entitate baten izenean jardunez gero, notario-ahalorde, Udalak askietsiko duena.

b) Lizitatzailea pertsona juridikoa denean, eratze- edo aldaketa-eskritura, hala badagokio, Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribatua, eta identifikazio fiskaleko zenbakia, aplikatu beharreko merkataritza-legeriaren arabera inskripzioa eskatzen denean. Hala ez bada, eratze-eskritura edo -agiriaren bidez, estatutuen bidez edo eratze-egintzaren bidez egiaztatuko da jarduteko gaitasuna. Bertan zehaztu beharko da jarduera zein arauk erregulatzen duen, eta, beharrezkoa bada, dagokion erregistro ofizialean inskribatuko dira agiriak.

Espainiakoak ez baina Europar Batasuneko estatu kideetakoak diren enpresaburuen kasuan, ezarrita dauden estatuko legeriaren arabera dagokien erregistroan inskribatuta daudela egiaztatu beharko dute, edo, bestela, Erantzukizunpeko adierazpena edo ziurtagiria aurkeztu beharko dute, aplikatzekoak diren Batasuneko xedapenak kontuan hartuta.

Gainerako enpresaburu atzerritarrek jarduteko gaitasuna egiaztatu beharko dute, Espainiak dena delako estatuan daukan Diplomaziako Misio Iraunkorraren edo enpresaren egoitza dagoen lurralde-eremuko bulego kontsularraren txostena aurkeztuta.

c) EJZ-n, kontratuaren xedeari dagokion epigrafean, alta emanda dagoela egiaztatzen duen agiria aurkeztea, uneko ekitaldiari dagokionez; edo EJZ-ren azken ordainagiria, gainerako kasuetan. Bi kasu horietan, zerga horren matrikulan baja eman ez izanaren Erantzukizunpeko adierazpena ere aurkeztu beharko da.

d) Lizitatzailearen ekonomia- eta finantza-kaudimenaren eta kaudimen tekniko edo profesionalaren egiaztagiriak, SPKL-ko 87. eta 90. artikuluetan ezarritako bitartekoen bidez. Aipatutako baliabideei dagokienez, honako hauek izango dira enpresek kontratu jakin honetarako bete beharreko gutxieneko kaudimen-baldintzak:

- EKONOMIA- ETA FINANTZA-KAUDIMENA

Ekonomia- eta finantza-kaudimeneko gutxieneko baldintzak:

Negozioen urteko bolumena. Azken hiru ekitaldietatik negozio-bolumen handieneko urteari dagokionez, gutxienez **60.000** eurokoa izan beharko da. Hori egiaztatzea, nahitaez, esleipendun proposatutakoari eskatuko zaio, eta eskaintzari uko egiteko kausa izango da beherago adierazten den moduan ez egiaztatzea.

Negozioen urteko bolumena honela egiaztatuko da: onetsitako eta Merkataritza Erregistroan gordailatutako urteko kontuen bidez, enpresaburua erregistro horretan inskribatuta badago, eta, bestela, inskribatuta egon behar duen erregistro ofizialean gordailatutako kontuen bidez. Merkataritza Erregistroan inskribatuta ez dauden banakako enpresaburuek Merkataritza Erregistroak legeztatutako inbentario-liburuen eta urteko kontuen bitartez egiaztatuko dute beren negozioen urteko bolumena.

(Oharra: Negozioen urteko bolumentzat hartuko da merkataritza-legerian ezarritako urteko kontuen arauzko ereduetako galeren eta irabazien kontuan ageri den negozio-zifraren zenbateko garbia).

-KAUDIMEN TEKNIKOA EDO PROFESIONALA:

- Egindako zerbitzuen zerrenda

Kontratuaren xede diren lanen izaera bereko edo antzeko lanak egiten esperientzia izatea, eta azken hiru urteetatako jardun handieneko urtean metatutako zenbatekoa **10.500 eurokoa edo gehiago** izatea. Hori egiaztatzea, nahitaez, esleipendun proposatutakoari eskatuko zaio, eta ez egiaztatzea eskaintza baztertzeko arrazoia izango da.

- Zerbitzura atxikitako langileen esperientzia

Enpresa lizitatzaileek egiaztatu beharko dute kontratua egikaritzera atxikitako langileek benetako esperientzia dutela zerbitzua ematen, gutxienez hiru (3) urteko antzinatasunarekin.

Izaera bereko edo antzeko zerbitzuak

Ondorio horietarako, izaera bereko edo antzeko zerbitzu edo lantzat joko dira gurasoei zuzendutako zerbitzu juridikoa eta orientazioa dakartenak.
Kaudimena gauzatze onaren ziurtagirien bidez edota **¡Error! Referencia de hipervínculo no**

válida. 90.1.a artikuluan adierazitakoaren arabera baliokidea den dokumentazioarekin egiaztatuko da, eta bertan honako hau jasoko da gutxienez:

I) Zerbitzu edo lanaren zenbatekoa.
II) Prestazioaren xedea edo deskribapena.
III) Bezero/hartzailearen identifikazioa.
IV) Egikaritzearen data/urtea(k).

Gutxieneko giza baliabideak

- Zuzenbidean titulua duen eta Familia Zuzenbidean esperientzia egiaztatua duen profesionala, gutxienez hiru (3) urteko antzinatasunarekin
- Psikologiako titulua duen eta familiako esku-hartzean eta gurasotasun positiboan esperientzia egiaztatua duen profesionala.

Izendatutako langileek zerbitzuaren helbururako egokiak diren prestakuntza eta esperientzia izan beharko dituzte. Langileek zerbitzua erabiltzaileei euskaraz ematea bermatzeko hizkuntza-betebeharrak bete beharko dituzte, bai eta herritarrei edo erabiltzaileei zuzendutako inprimaki, gutun, menu eta gainerako jakinarazpenetan euskara erabiltzea bermatzekoa ere.

e) Hainbat enpresaburu Aldi baterako enpresa-elkarte bat eratuz aurkezten badira lizitaziora, elkarte hori osatzen duen enpresa bakoitzak bere gaitasuna eta kaudimena egiaztatu beharko ditu, aurreko puntuetan ezarritakoaren arabera. Era berean, proposamenean adieraziko dute aldi baterako enpresa-elkarteko kide bakoitzak zer xede zati egingo lukeen, kide guztien kaudimen-baldintzak zehaztu eta egiaztatzeko.

f) Atzerriko enpresek, kontratutik zuzenean edo zeharka erator daitezkeen gorabehera guztietarako, Espainiako edozein mailatako epaitegi eta auzitegiren jurisdikzioaren mende jartzen direla adierazten duen adierazpena, hala dagokionean, lizitatzaileari egokitu dakiokeen atzerriko jurisdikzio-foruari uko eginez.

g) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beteta dituela egiaztatzea, edo kontratazio-organoari hori zuzenean lortzeko baimena ematea.

h) Behin betiko bermea jarri izanaren egiaztagiria.

Aurreko a), b) eta d) letretan adierazitako inguruabarrak egiaztatzeko, Euskadiko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroaren ziurtagiri bat, Estatuko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialaren ziurtagiri bat edo Europar Batasuneko ziurtagiri bat aurkeztu ahalko da, SPKL-ko 96. eta 97. artikuluetan ezarritakoari jarraituz. Atal honetan aipatutako ziurtagiriak elektronikoki jaulki ahal izango dira.

Aipatutako epean errekerimendua behar bezala betetzen ez bada, ulertuko da lizitatzaileak bere eskaintza erretiratu duela, eta, kasu horretan, dokumentazio bera eskatuko zaio hurrengo lizitatzaileari, eskaintzak sailkatuta geratu diren hurrenkeran.

Atal honetan aipatutako errekerimenduaren ondoren aurkeztutako dokumentazioan konpontzeko moduko akatsak badaude, hiru egun naturaleko epea emango da horiek zuzentzeko, eta lizitatzaileari zuzenean jakinaraziko zaio, eta Udalaren kontratatzailearen profilean ere iragarriko da.

18. ESLEIPENA ETA FORMALIZAZIOA

Kontratazio Organoak kontratua eskaintzarik onena aurkezten duen lizitatzaileari esleitzea erabakiko du, lehen sailkatuari eskatutako dokumentazioa jaso eta hurrengo bost egun balioduneko epean, SPKL-ko 150.3 artikuluak agindutakoa aplikatuz.

Esleipena lizitatzaile guztiei jakinaraziko zaie, eta erakunde honen kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Kontratua formalizatzeko, lizitazioaren baldintzei zehatz-mehatz egokitzen zaien administrazio-dokumentu bat eratuko da, eta dokumentu hori edozein erregistro publikotan sartzeko titulu nahikoa izango da. Hala ere, kontratua eskritura publiko bihurtzeko eskatu dezake kontratistak; kasu horretan, haren kontura izango dira eskritura publikoaren ondoriozko gastuak.

Esleipenaren jakinarazpenean adierazitako epean, gehienez ere 15 egun balioduneko epean, esleipenduna Administrazio honetara bertaratu beharko du, kontratua administrazio-dokumentu gisa formalizatzeko.

19. KONTRATUA EZ EGITEKO ERABAKIA ETA PROZEDURAN ATZERA EGITEKOA

SPKL-ko 152. artikuluan ezarritakoaren arabera, Kontratazio Organoak, behar bezala justifikatutako interes publikoko arrazoiengatik, kontratua ez esleitzeko, edo ez egiteko, erabakia hartu ahal izango du. Era berean, prozeduran atzera egin ahal izango du, baldin eta kontratua prestatzeko arauetan edo esleipen-prozedura erregulatzeko arauetan konpondu ezin den arau-hauste bat hautematen badu. Hala kontratua ez egiteko erabakia, nola prozeduran atzera egitekoa, kontratua formalizatu aurretik hartu beharko dira, artikulu horretan ezarritako baldintzen arabera.

III. KONTRATUA EGIKARITZEA

20. KONTRATUA EGIKARITZEKO ARAUBIDE OROKORRA

Kontratistaren arrisku eta menturara burutuko da kontratua, plegu honetan jasotako klausulen arabera eta, hala badagokio, espedienteari erantsitako zehaztapen teknikoen arabera; eta Administrazioaren zuzendaritza, ikuskaritza eta kontrolpean. Administrazioak idatziz zein ahoz erabili ahal izango ditu ahalmen horiek.

Kontratistari edo haren mendeko pertsonei egotz dakizkiekeen egite edo ez-egiteengatik

kontratuaren martxa ona arriskuan jartzen bada, Administrazioak beharrezkotzat jotzen dituen neurriak hartzeko eskatu ahal izango du, bere egikaritzea ongi bideratzeko edo berrezartzeko

SPKL-ko 202.1 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz, kontratu hau egikaritzeko **KONTRATUAREN FUNTSEZKO BALDINTZA** hauek eskatuko dira: Hauek izango dira kontratua egikaritzeko oinarrizko baldintzak:

- Proiektua garatu eta gauzatzeko behar diren langileak jartzea.
- Ezarri beharreko antolaketa-eredua deskribatzea.
- Kontratua egikaritzeko behar diren langileak kontratuari atxikitzea.
- Aplikatu beharreko lege-araudi guztia zorrotz betetzen dela bermatzea (lana, ingurumena, zergak, laneko osasuna eta laneko arriskuen prebentzioa, datuen babesa,...), baita programan zehar sortutako datu guztien babes seguru eta arduratsua ere.
- Kontratuaren xede diren zerbitzuak emateko bere kargura erabiltzen dituen langileen soldata eta lansariak ordaintzea, legez dagozkion gizarte eta zerga gastuekin.
- Gizarte Zerbitzuen arloari, arduradunaren bitartez, zerbitzuaren garapenean eta eskaintzan gertatzen den edozein gorabehera edo aldaketa garrantzitsuren berri ematea.
- Emandako zerbitzuaren memoria aurkeztea: memoria hori urtero aurkeztu beharko da. Halaber, luzapen bakoitzaren azken memoria aurkeztu beharko da, luzapenik izanez gero.
- Zerbitzuak emateari, langileei edo kontratua egikaritzearekin zerikusia duen beste edozein alderdiri buruz, aldizka, eskatzen zaion informazio guztia ematea.
- Gizarte Zerbitzuen arloko oharrak betearaztea, korporazioaren edo erakundearen nortasun-ikurrekin zerikusia duten alderdi guztietan, kontratu honen kontura ematen diren jarduerei eta zerbitzuei buruz egiten diren dokumentazioan eta zabalkundean.
- Enpresa esleipendunak gizarte-aseguruen kitapenak ordainduta dituela egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko ditu faktura bakoitzarekin, ordaintzeko aurreikusitako moduen arabera.

Aipatutako baldintzak kontratuko funtsezko betebeharrak dira; beraz, SPKL-ko 201. artikuluan ezarritakoaren babesean, horiek ez betetzea kontratua indargabetzeko arrazoitzat hartu ahal izango da, aipatutako legearen 211.1.f) artikuluan adierazitako ondorioetarako.

Kontratistak kontratua betetzen ez badu, eta horren ondorioz, zerbitzuan beste bitarteko batzuekin ezin konpon daitekeen nahasmendu larria sortzen bada, eta Administrazioak ez badu erabakitzen kontratua suntsiaraztea, Administrazioak kontratua bahitzea, edo hartan esku hartzea erabaki ahal izango du, harik eta aipatutako nahasmendua desagertu arte. Nolanahi ere, benetan sortutako kalte-galerak ordaindu beharko dizkio kontratistak Administrazioari.

Administrazioak zerbitzuaren martxa ona bermatzeko behar diren polizia-ahalmenak gordeko ditu.

21. KONTRATISTAREN LAN-BETEBEHARRAK

Kontratistak nahitaez bete beharko ditu lan arloan, gizarte-segurantzan eta laneko segurtasun eta higienean indarrean dauden legezko xedapenak, bai eta aplikatzeko sektoreko hitzarmen kolektiboaren araberako soldata-baldintzak ere. Hori guztia kontratu honen xede diren zerbitzuetan erabiltzen dituen langileei dagokienez. Hori betetzen ez bada, Administrazioak ez du erantzukizunik izango.

22. KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA EGIKARITZEAN HIRUGARRENEI ERAGINDAKO KALTEENGATIK

SPKL-ko 196. artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratista izango da kontratua egikaritzeko egin behar diren eragiketen ondorioz sortzen diren kalte-galeren erantzulea.

23. KONTRATUA ALDATZEA

Administrazioak kontratua aldatu ahal izango du interes publikoko arrazoiengatik, baldin eta SPKL-ko 205. artikuluan berariaz aurreikusitako inguruabarretako bat gertatzen bada, lege bereko 203., 206. eta 207. artikuluetan agindutakoarekin bat etorriz; betiere, horrek lizitazioaren eta esleipenaren funtsezko baldintzak aldatzea ez badakar.

Aurrez aipatutako balizko aldaketak nahitaezkoak izango dira kontratistarentzat.

24. DATU PERTSONALEN BABESA

Esleipendun suertatzen den erakundeak datu pertsonalen babesari buruz indarrean dagoen araudia bete beharko du, eta, bereziki, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua, datu pertsonalak tratatzeari eta datu horiek aske zirkulatzeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, eta 95/46/EE Zuzentaraua (Datuak babesteko Erregelamendu Orokorra) indargabetzen duena, eta Datu Pertsonalak Babestekoa eta. Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Legea.

<u>Gardentasun-printzipioa betetzea datuen tratamenduan</u>

Jakinarazten da erakunde kontratistaren eta lizitatzaileen harremanetarako datu pertsonalak eta ordezkarienak alde bakoitzarekin lotzen duen harreman juridiko edo administratiboa garatzen den bitartean erabiliko direla, lizitazio hau kudeatzeko eta ebazteko, kontaktua eta komunikazioa mantentzeko, eta ezarritako harremana kudeatzeko. Tratamendu hori alderdien arteko harreman juridiko edo administratiboan oinarritzen da.

Ez da aurreikusten datu horiek hirugarrenei lagatzea, ezta nazioarteko datu-transferentziak egitea ere.
Zerbitzua ematerakoan datu pertsonalak tratatzen badira, esleipendunak, gainera, klausula honetan ezarritakoa bete beharko du. Hala ere, lizitatzailea kontratu honen esleipendun suertatzen bada, “Erantzukizunpeko adierazpena eta datuen babeserako eranskina” dokumentua ere sinatu beharko du, Udalak emango diona.

Tratamendu-mandatuaren xedea

Esleipenduna izango den erakundea gaitzen da, tratamenduaren enkargatua izango dena, Udalaren kontura, tratamenduaren arduraduna izango dena, kontratazioaren xede den zerbitzua emateko beharrezkoak diren datu pertsonalak tratatzeko. Datu horiek "Erantzukizunpeko adierazpena eta datuen babeserako eranskina" dokumentuan zehaztuko dira, eta esleipendun gertatzen denarekin sinatuko den kontratua formalizatzearekin batera sinatuko da.

Eragindako informazioa identifikatzea: Kontratazio-pleguaren xedea betetzetik eratorritako prestazioak gauzatzeko, Udalak "Erantzukizunpeko adierazpena eta datuen babeserako eranskina" dokumentuan deskribatzen den informazioa jarriko du esleipendun suertatzen den erakundearen (tratamenduaren enkargatua) eskura.

Iraupena

Klausula honetan adierazitakoa indarrean egongo da harreman lotesleak irauten duen bitartean, edo legezko betebeharrak betetzeko behar diren urteetan. Hori gorabehera, datuak eta tratamenduaren enkargatuak informazioa eta datuak aztertzeko eta egiaztatzeko aldian behin berrikuspen egokiak egin ahal izango ditu.

Harreman hori amaitzean, esleipendun suertatzen den erakundeak datu pertsonalak ezabatu beharko ditu, tratamenduaren enkargatu gisa dituen betebeharrei buruzko hurrengo atalean aurreikusitakoaren arabera, eta, nolanahi ere, ez du inolako kopiarik gorde beharko bere esku, Udalaren berariazko baimena izan ezean.

Tratamenduaren enkargatuaren betebeharrak

Esleipendun suertatzen den erakundeak eta, hala badagokio, bere ardurapeko langileek honako betebehar hauek izango dituzte:

1- Tratatzen diren datu pertsonalak, edo datu horiek sartzeko jasotzen direnak, plegu honen xedea betetzeko soilik erabiltzea. Inola ere ezingo ditu datuak berezko helburuetarako erabili.

2- Datuak Udalaren argibideen arabera tratatzea

3- Udalaren kontura egindako tratamendu-jardueren kategoria guztien idatzizko erregistroa eramatea. Erregistro horretan honako hauek jaso beharko dira:

- Esleipendun izango den erakundearen izena eta harremanetarako datuak, eta, hala badagokio, datuak babesteko haren ordezkariarenak.
- Udalaren kontura egindako tratamenduen kategoriak

- Segurtasun arloko neurri teknikoen eta antolaketa-neurrien deskribapena, aplikatu behar badira, honako hauei buruzkoak:

  - Datu pertsonalak seudonimizatzea eta zifratzea.
  - Tratamendu-sistemen eta -zerbitzuen konfidentzialtasuna, osotasuna, eskuragarritasuna eta erresilientzia bermatzeko gaitasuna.
  - Gorabehera fisiko edo teknikoren bat gertatuz gero, datu pertsonalen erabilgarritasuna eta eskuragarritasuna bizkor lehenerazteko gaitasuna.
  - Tratamenduaren segurtasuna bermatzeko neurri teknikoen eta antolaketa-neurrien eraginkortasuna egiaztatzeko, ebaluatzeko eta balioesteko prozesu erregularra

4- Lagatzeak eta pertsona erabiltzaileen datuak: Oro har, ezin izango zaie daturik komunikatu hirugarren pertsonei edo erakundeei, ordezkaritza eta defentsa judizialaren esparruan hirugarren legitimatuek ezagutu beharreko informazioa izan ezik.

5- Azpikontratazioa: Debekatuta dago akordio honen xedearen parte diren prestazioak Udalaren aldez aurreko baimenik gabe azpikontratatzea.
Kontratazio-prozesu honen ondorioz eskuratu ahal izan dituen datu pertsonalak isilpean gorde beharko ditu, baita kontratuaren xedea amaitu eta gero ere.

6- Datu pertsonalak tratatzeko baimena duten pertsonek konfidentzialtasuna errespetatzeko eta dagozkion segurtasun-neurriak betetzeko konpromisoa hartzea, berariaz eta idatziz, eta betebehar hori betetzen dutela egiaztatzeko agiriak Udalaren esku uztea.

7- Esleipenduna den erakundean, datu pertsonalak tratatzeko baimena duten langileei dagokienez datu pertsonalak babesteko beharrezkoa den prestakuntza bermatzea.

8- Udalari laguntza ematea datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta datuen aurka egiteko, datuen tratamendua mugatzeko, banakako erabaki automatizatuen xede ez izateko (profilak egitea barne) eta, hala dagokionean, datuen eramangarritasunarekin lotutako eskubideei erantzuteko. Esleipendun suertatzen den erakundeak arduradunaren datu-tratamenduei dagozkien eskubideez baliatzeko eskaeraren bat jasotzen badu, Udalari jakinarazi beharko dio gehienez ere 48 orduko epean.

9- Udalari dagokio interesdunei informazioa emateko eskubidea ematea. Beraz, esleipendunak ez du berezko informazio-eredurik aurkeztu behar, eta Udalak emandakoetara jo beharko du edo eskatu beharko du, datuak biltzeko edozein bide edo kanaletan sartu behar badira.

10- Datuen segurtasun-arrakalen jakinarazpena: Esleipena lortzen duen erakundeak Udalari jakinaraziko dizkio, bidegabeko atzerapenik gabe, eta gehienez ere 24 orduko epean, posta elektronikoz kontratuaren xedea gauzatzeko edota gainbegiratzeko ardura duen pertsonari, ezagutzen dituen datu pertsonalen segurtasunaren urraketak, bai eta gorabehera dokumentatzeko eta jakinarazteko garrantzitsua den informazio guztia ere. Zehazki, gorabeheraren deskribapena eta izan ditzakeen ondorioak, eragindako pertsonen gutxi gorabeherako kategoria eta kopurua, atzera egiteko eta eragina arintzeko hartutako neurriak.

Ez da jakinarazpenik egin beharko, segurtasun-urraketa horrek nekez jar ditzakeenean arriskuan pertsona fisikoen eskubide eta askatasunak.

11- Udalari laguntza ematea datuen babesaren gaineko eraginen ebaluazioak egiten, hala dagokionean.

12- Kontrol-agintaritzan aurretiko kontsultak egiten laguntzea Udalari, hala dagokionean.

13- Udalaren esku jartzea bere betebeharrak betetzen dituela frogatzeko behar den informazio guztia, bai eta Udalak edo hark baimendutako beste auditore batek egiten dituen auditoretzak edo ikuskapenak egitekoa ere.

14- Tratamendu-sistemen eta -zerbitzuen konfidentzialtasuna, osotasuna, erabilgarritasuna, trazabilitatea eta erresilientzia iraunkorra bermatzeko segurtasun-neurriak ezartzea. Halaber, gorabehera fisiko edo teknikoren bat gertatuz gero, datu pertsonalen eskuragarritasuna eta atzipena azkar berrezartzeko aukera ematen dutenak, eta tratamenduaren segurtasuna bermatzeko ezarritako neurri teknikoen eta antolaketa-neurrien eraginkortasuna aldizka egiaztatzeko, ebaluatzeko eta baloratzeko aukera ematen dutenak. Onarturiko estandarren arabera, aldeen artean jarraibide bidez ezarri edo adostu daitezkeen eta, gainera, horretarako egiaztagiri eta ziurtagirien bidez frogatu ahal izango diren beste batzuk ezartzearen kalterik gabe. Bereziki, ezarri beharreko segurtasun-neurriak kontratua formalizatzeko dokumentuarekin batera sinatu beharreko “Erantzukizunpeko adierazpena eta datuen babeserako eranskina” dokumentuan zehaztutakoak izango dira, gutxienez.

Segurtasunaren Eskema Nazionala arautzen duen maiatzaren 3ko 311/2022 Errege Dekretuko 2.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, esleipendunak beharrezko segurtasun-neurriak ezarri beharko ditu SEN-aren adostasuna bermatzeko kontratu honen xedearen arabera kontratistek ematen dituzten zerbitzuen datu pertsonalen tratamenduarekiko. SEN-aren Adostasunaren Adierazpenak edo Ziurtagiriak erakustea adostasun horren berme nahikoa izango da, eta erakunde kontratatzaileak ziurtatuko du aipatutako Errege Dekretuaren 38. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Kontratistarentzat ezarritako egokitze-epea igaro arte, 311/2022 Errege Dekretuko Xedapen Iragankor bakarrean ezarria, erakunde kontratatzaileak zenbait segurtasun-neurri eredu ezartzen ditu, zerbitzuka sailkatuta, eta erakunde esleipendunak horiek, gutxienez, egiaztatzeko moduan egon beharko du.

15- Datuen xedea: Esleipendun suertatzen den erakundeak prestazioa bete ondoren itzuli beharko dizkio Udalari datu pertsonalak eta, hala badagokio, horiek jasotzen dituzten euskarriak. Itzulketak berekin ekarri behar du erakunde esleipendunak erabilitako ekipo informatikoetako datu guztiak ezabatzea.

Kontratista datuen babesari buruzko estatuko eta Europar Batasuneko araudiaren mende

ZUMARRAGAKO UDALA Euskadi Plaza 1, 20700 ZUMARRAGA (Gipuzkoa). Tel.: 943 72 90 22 Faxa. 943 72 46 79 E-mail: informazioa@zumarraga.

egongo da, eta arlo hori kontratuko funtsezko betebeharra da (211.1.f) SPKL).

25. PRESTAZIOA JASOTZEA ETA BERME-ALDIA

Kontratuaren xede den prestazioa amaitu, eta gehienez ere hilabeteko epean, haren harrera egiteko egintza formal eta positiboa gauzatuko da.

Kontratu honen izaera dela eta, ez da aurreikusten berme-eperik ezartzea.

26. KONTRATUA EZ BETETZEAGATIK KONTRATISTARI EZARRI BEHARREKO ZIGORRAK

A. Kontratua egikaritzeko epeak ez betetzea

Baldin eta kontratista, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, kontratua egikaritzeko epea betetzen berandutu bada, bai epe osoan, bai, kasua bada, epe partzialetan, Administrazioak aukeran izango du kontratua suntsiarazteko, bermea galduta, edo zigorrak ezartzeko, proportzio honetan: kontratuaren prezioaren 1.000 euroko 0,60 euro egunean, BEZ gabe

Berandutzearen ondoriozko zigorrak kontratuaren prezioaren ehuneko 5eko multiplo batera iristen diren bakoitzean, kontratazio-organoak ahalmena izango du kontratua suntsiarazteko ala, zigor berriak ezarrita, kontratua betetzen jarraitzea erabakitzeko.

B. Prestazioen egikaritze partziala ez betetzea

Kontratistak, berari egotz dakizkiokeen arrazoien ondorioz, ez baditu bete kontratuan zehaztutako prestazioak zati batean, Administrazioak aukera izango du, nahieran, kontratua suntsiarazteko ala zigor bat ezartzeko, kontratuaren prezio osoaren ehuneko 10ekoa.

C. Akatsekin betetzea

Prestazioa akatsekin betez gero, Administrazioak zigorrak ezarri ahal izango ditu, gehienez ere kontratuaren prezioaren ehuneko 10ekoak, BEZ gabe; eta zigor horien guztizkoak ezin izango du hitzartutako prezioaren ehuneko 50 gainditu

D. Ingurumen-, gizarte- edo lan-betebeharrak ez betetzea

Kontratistak ez baditu betetzen ingurumen-, gizarte- edo lan-betebeharrak, bereziki, soldaten ordainketan behin eta berriz atzeratzen bada, edo hitzarmen kolektiboetatik eratorritakoak baino soldata-baldintza baxuagoak aplikatzen baditu, eta ez-betetzea larria eta dolozkoa bada, Administrazioak, SPKL-ko 201. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuta, zigorrak ezarri ahal

izango ditu, gehienez ere kontratuaren prezioaren ehuneko 10ekoak, BEZ gabe; zigor horien guztizkoak ezin izango du gainditu hitzartutako prezioaren ehuneko 50a

E. Azpikontratistekiko betebeharrak ez betetzea

SPKL-ko 217. artikuluan xedatutakoari kalterik egin gabe, kontratistak azpikontratistekiko betebeharrak betetzen ez baditu, Administrazioak zigorrak ezarri ahal ditu, bakoitza gehienez ere kontratuaren prezioaren ehuneko 10ekoa, BEZ gabe; zigor horien guztizkoak ezin izango du gainditu hitzartutako prezioaren ehuneko 50a

F. Langileak subrogatzeko betebeharrak ez betetzea

Kontratistak ez baditu betetzen kontratuaren xede den zerbitzuak eragindako langileak subrogatzeko betebeharra, Administrazioak, SPKL-ko 130.4 artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz, zigorrak ezarri ahal izango ditu, bakoitza gehienez ere kontratuaren prezioaren ehuneko 10ekoa, BEZ gabe; zigor horien guztizkoak ezin izango du gainditu hitzartutako prezioaren ehuneko 50a

27. KONTRATUA SUNTSIARAZTEKO ARRAZOIAK

Zerbitzu-kontratua suntsiarazteko kausak dira Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legeko 211. eta 313. artikuluetan ezarritakoak

28. KONTRATUA LAGATZEA

Kontratutik sortutako eskubideak eta betebeharrak hirugarren bati laga ahal izango dizkio kontratistak baldin eta:

a) lagatzailearen ezaugarri teknikoak edo pertsonalak kontratua esleitzeko arrazoi erabakigarriak izan ez badira,
b) lagatzeak ez badakar merkatuko lehia benetako murriztea,
c) lagatzeak ez badakar kontratistaren ezaugarrien funtsezko aldaketarik, ezaugarri horiek kontratuaren funtsezko elementuak izanik, eta
d) lagatzea SPKL-ko 214.2 artikuluan jasotako eskakizun eta betekizunen arabera egiten bada.

29. AZPIKONTRATAZIOA

Kontratistak hirugarrenekin azpikontratatu ahalko du prestazioaren zati bat. Nolanahi ere, azpikontratazio horrek Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legeko 215. eta 216. artikuluetako baldintzak bete beharko ditu.

IV.- IZAERA, ARAUBIDE JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

30. KONTRATUAREN IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA

Plegu honen arabera egingo den kontratuak izaera administratiboa izango du, eta plegu honen eta gainerako dokumentazio teknikoaren arabera arautuko da. Lege horretan aurreikusten ez den guztian, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legean xedatutakoari jarraituko zaio, eta, lege horren aurka ez doan guztian, Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorrean (urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren bidez onartua), maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuan (Sektore Publikoko Kontratuen urriaren 30eko 30/2007 Legea zati batean garatzen duena) eta Administrazio Publikoen kontratazioan aplikagarri diren gainerako arauetan xedatutakoa beteko da.

Administrazio Klausula Berezien Plegu honen eta espedienteari lotutako gainerako dokumentazio teknikoen artean kontraesanik egonez gero, Plegu honetan ezarritakoa gailenduko da.

31. ADMINISTRAZIOAREN ESKUBIDEAK

Administrazioari dagozkio honako prerrogatibak: kontratua interpretatzekoa, kontratua betetzeak sortzen dituen zalantzak ebaztekoa, interes publikoko arrazoiengatik aldatzeko, kontratua egikaritzearen ondorioz kontratistari egotz dakiokeen erantzukizuna deklaratzeko, kontratua egikaritzea etetekoa, kontratua suntsiaraztea erabakitzekoa eta kontratuaren ondorioak zehaztekoa; betiere SPKL-an eta Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorrean ezarritako mugen barruan, eta horietan ezarritako baldintza eta eraginen arabera.

32. JURISDIKZIO ESKUDUNA

Kontratu honen ondorioz sor daitezkeen auzi eztabaidagarriak kontratazio-organoak ebatziko ditu. Organo horren erabakiek amaiera emango diote administrazio-bideari, eta administrazioarekiko auzien jurisdikzioan aurkaratu ahal izango dira zuzenean. Dena dela, kontratazio arloko errekurtso berezia aurkeztu ahal izango da, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 44.etik 60.era bitarteko artikuluetan edo Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeko edozeinetan araututakoaren arabera.

EGINBIDEA.- Zumarragako Udaleko idazkaria naizen aldetik, jakinarazten dut, administrazio-klausula partikularren agiri hau eta haren eranskinak 2026ko irailaren 18ko 1122 zenbakiko Alkatetzaren Dekretuaren bidez onartu direla, jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan.

Idazkaria,

“

Elektronikoki sinatutako agiria
ZUMARRAGAKO UDALA
Documento firmado electrónicamente

Firmado por: LUCIA OCARIZ BADIOLA
Fecha : 29/09/2026- 10:31:34